
AUR-EZIKETA (17)

JUANTXO-TXIKIREKIN APAL

Semea ondo ezitzeko, arrokeri gitxi. Arrokeri-bidea ez dozu bide ona; oso txarra baiñe. Arrokeriak alde batera itzi eta apaltasunean ibiltzen ikasi bearke dozu, ezitzaille ona izan nai ba'dozu beintzat.

—Zeñiek eta nork ez dau bere umetxoen ezitzaille ona izan nai...?

—Aia bear litzake.

Apaltasuna arlote jantzita agertzen jaku gaurko gizarte onetan. Ez dau inork apal izan nai. Egia eta justizia dagoz modan gaurko egunez; baiña apaltasunari eta maitasunari giroa aldatu jake. Giro onik ez dabe gizarte onetan.

Izena ez da izana, izate guztiak izena euki arren. Apaltasunaren izena ez jaku gogoko; bere izana zertan dagoan ez badakigu be. Apaltasunaren izana zer da? Zertan dago apaltasun ori?

*

Apaltasuna egia da. Orra zuk ainbeste maite dozun izena agertu da: egia. Nun dago apaltasuna? Arrokeria eta ergelkeriaren erdian, bien artean eta erdi-bidean.

Arrokeria, apaltasunaren beste ertz, guzurrea da. Zeure burua jotzen dozu ontzat, edertzat, aunditzat... geiegiko neurrian; ez zara ainbeste, gitxiago be... Ingurukoak parre egiten dautsoe zure uste inuzurri.

Zeure burua izarretaraiño, arrokeriak artara eroanda, goratzen dozu konturatuta ala konturatzeko eta gezurretan zabiltzala danen bistan dago zeurean ezik. Itsututa zabiltzala dirudi. Zure jokabidea ez da egiazkoa...

—Orduan, nire burua lurreraiño zapaldu bearke dot...?

—Ori be ez litzake egia izango eta egia ez ba'da, apala be ez. Daukazuna aitortu, egia esateko eta apala izateko. Ez daukazuzenen jabe ez egiñ; daukazuzanak, ukatu barik. Daukazuzanak ukatzea ez da ez egia eta ez apala, lelokeria baino.

Daukazuzan doaiak euren neurrian ezagutzea, ori apaltasunaren egitekoa da. Ez daukazuzanak ez daukazuzala ezagutzea eta autortzea, ori be apaltasunaren lana dozu. Orra egia berriro. Doaiez beterik agertu zara mundu onetan baiña, zure izakeraren doai orreik inork emonak dozuz eta ez zeuk sortutakoak... Nondik dozu arrokeri ori...?

Auzoko Urliak baiño geiago dozula eta aizez puztu...? Arrotu...? Sorbaldagaiñetik lagunurkoari begiratu...? Billotsik eta nerru-gorritan jaiño ziñeen biok eta alantxe ilko zaree biok. Bitartean bateri bost, besteari bi eta irugarrenari bat bakarrik talentuetatik. Bakoitzari eman jakon neurrian eskatuko jako berezko doai orreitatik. Zeure lagunek baiño geiago al dozu? Kontu geiago eskatuko jatzu. Orra dana zertan gelditu jatzun...

Arrokeriz ez dozu umetxorik ondo eziko eta aziko. Orretarako apaltasuna bearke dozu eta Jainkoaren laguntza. Jainkoa arrokeritik urrun dabil.